



San Fausto

ermita

Aldacrak:

Ahozkoa:



43°10'1"

2°35'13"

Berriz Iruditan / A. Arbulu

San Fausto Nekazariaren gorputz ustelbakoa Arabako Kanpezu aldean dago. Kondairak dioenez, agindu zuen hil ostean zaldi gainean igotzeko eta zaldia joango zen lekuan hilobiratzeko. 604. urtean hil omen zen, nahiz eta tradizioz mairuak kristautzen aritu zen. Azken hau ez da posible 711n heldu baitziren Penintsulara. Jai eguna urriaren 14an da.

Durangaldean oso zabalduta dagoen adbokazioa da San Faustorena, Lleidan jaio eta Arabako Bujandan gordetzen den santuarena. Eituako ermita eraikin ederra da, harrizkoa. Tramu bakarrekoa eta presbiterioduna da,

eta berorren sarrera moduan, puntu erdiko arku klasikoa dauka, sarrerako arkua bezala. Estaldura gisa, ertz ganga eta labe ganga erabili ziren. Oinaldean, kanpai-horma barrokoa dauka, akroterekin apaindua. Inguruko ermitak lez, portiko edo elizpea dauka bueltan-bueltan. Harlangaitza da usatutako materiala, kantil eta arkuetan ezik. Eta elizpeko teilatua harlanduzko zokalo eta koloma txiki klasikoen gainean eratuta dago. Barrualdea burdinsare metaliko baten bitartez ikusten da, bertan sarrerako atea izanik.